



**EIBAR**  
Udala | Ayuntamiento



**EIBARKO UDALA**  
Ayuntamiento de Eibar

**HAUTAKETA-PROZESUA**

**LAU GARBITZAILE PLAZA**

**Lehenengo ariketa: proba teorikoa**

**2026-03-23**



**1 ESPAINIAKO 1978KO KONSTITUZIOAREN 1.1. ARTIKULUAK EZARTZEN DU ESPAINIA ZUZENBIDE-ESTATU SOZIAL ETA DEMOKRATIKO GISA ERATZEN DELA, ETA BERE ORDENAMENDU JURIDIKOAREN BALIO GORENTZAT HONAKO HAUEK HARTZEN DITUELA:**

- 1a) Askatasuna, berdintasuna eta fraternitatea.
- 1b) Askatasuna, pluralismo politikoa eta subiranotasuna.
- 1c) Askatasuna, berdintasuna eta pluralismo politikoa eta sindikala.
- 1d) Askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismo politikoa.

**2 ZER HARTZEN DU OINARRI KONSTITUZIOAK?**

- 2a) Espainiako nazioaren batasuna.
- 2b) Espainiako nazioa osatzen duten herrien aniztasuna
- 2c) Espainiako nazioaren batasun ezin hautsizkoa.
- 2d) Espainiako nazioa osatzen duten herri eta nazionalitate guztien batasun-konpromisoa.

**3 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN MARTXOAREN 16KO 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 21.1 ARTIKULUAREN ARABERA, ENPLEGU PUBLIKOKO LANPOSTUAK LORTU, BETE ETA MAILAZ IGOZKEKO HAUTAKETA-PROZESUAK ERREGULATZEN DITUZTEN ADMINISTRAZIO-ARAUETAN EDO -EGINTZETAN, PRAKTIKALDIEI BURUZKOAK BARNE HARTUTA, HONAKO HAUEK JASO BEHAR DIRA:**

- 3a) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 10 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
- 3b) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 20 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.



3c) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 30 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

3d) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 40 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

**4 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN MARTXOAREN 16KO 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 22.2 ARTIKULUAREN ARABERA, GENERO-IKUSPEGIA KONTRATUAREN XEDEAREN EZAUGARRI TEKNIKO BAT DENEAN:**

4a) Xede horren definizioan berariaz txertatu ahal izango da emakumeen eta gizonen berdintasunaren aipamen espezifiko bat.

4b) Xede horren definizioan ezingo da berariaz txertatu emakumeen eta gizonen berdintasunaren aipamen espezifikorik.

4c) Xede horren definizioan derrigorrez txertatu beharko da berariaz emakumeen eta gizonen berdintasunaren aipamen espezifiko bat.

4d) Xede horren definizioan ez da berariaz derrigorrez txertatu beharko emakumeen eta gizonen berdintasunaren aipamen espezifiko bat.

**5 GARBIKETA-PRODUKTU MOTEN SAILKAPENEAN, PRODUKTU HAUETAKO ZEIN EZ DA "MANTENTZE-PRODUKTU ESPEZIFIKOEN" TALDEKOA?**

5a) Garbigarriak.

5b) Ontzi-garbigarriak.

5c) Garbigarri neutroa.

5d) Erabilera anitzeko garbigarriak.

**6 BABES-PRODUKTUEN HELBURUA GAINAZAL BAT BABESTEIA DA. MOTA HONETAKO PRODUKTUEN BARRUAN KRISTALIZADOREAK DAUDE. NOLA ERABILTZEN DIRA?**



- 6a) Makina birakariarekin.
- 6b) Injekzio-erazketa makinarekin.
- 6c) Eskuz.
- 6d) Algodoizko lanbasarekin (fregonarekin).

**7 PRODUKTU KIMIKO BAT MANIPULATZEAN, ARRISKUA DAGO PRODUKTU HORREN EZAUGARRIEKIN LOTUTAKO ISTRIPU BAT ERAGITEKO. ZER EGIN BEHARKO LITZATEKE PRODUKTU KAUSTIKO EDO NARRITAGARRI BAT LARRUAZALAREN GAINERA ERORIZ GERO?**

- 7a) Partikula solidoak kendu.
- 7b) Arropa, bitxiak, etab. kendu.
- 7c) Ez da antidoto kimikorik erabili behar.
- 7d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

**8 LAN-SEKUENTZIEK ZUZENAKO LOTURA IZAN BEHAR DUTE ALDEZ AURREKO AZTERLAN BATEN BIDEZ LORTUTAKO ZEREGINEN BANAKETAREKIN. AZTERKETA HORI URTEBETEKO IRAUPENERAKO EGIN OHI DA, ETA DENBORA HORRETAN ERAIKINAREN GARBIKETA OSOA EGITEA ERABAKITZEN DA. ZER MAIZTASUNEZ EGIN BEHAR DA "ELEMENTU KOMUNEN EDO DEKORAZIOAREN GARBIKETA"?**

- 8a) Astean hiru aldiz.
- 8b) Egunero.
- 8c) Hamabostean behin.
- 8d) Astero.

**9 MATERIAL URRATZAILEEN ARTEAN SARTZEN DIRA MAKINA FREGATZAILE AUTOMATIKOETAN ETA BIRAKARIETAN ERABILTZEN DIREN DISKOAK. DISKO HAUEK KOLOREAREN ARABERA SAILKATZEN DIRA, HAIEN FUNTZIOA KONTUAN HARTUTA: KOLORE ZURIKOA ZER GARBIKETA MOTATARAKO ERABILTZEN DA?**

- 9a) Zorua garbitzeko eta zikinkeriak kentzeko.
- 9b) Mokatetarako eta linoliorako.
- 9c) Zorua sakon garbitzeko.
- 9d) Emultsioetarako.

**10 ZORUAK GARBITZEKO HAINBAT LANBAS (FEGONA) MOTA ERABILTZEN DIRA, ETA MOPAREKIN ERE GARBI DAITEKE. ERANTZUN HAUETAKO ZEIN EZ DA MOPAREKIN GARBITZEAREN ABANTAIETAKO BAT?**

- 10a) Produktu kimiko gutxiago erabiltzen dira.



- 10b) Denbora aurrezten da eskobatzea eta lanbasaz garbitzea batera egiten baita.
- 10c) Erabilera-denbora oso mugatua da, oso azkar galtzen baitituzte kalitateak.
- 10d) Hautsa guztiz jasota geratzen da airean partikularik egon gabe.

**11 GARBITZEKO ZAPIAREN (BAIETAREN) ERABILERA HAINBAT GAINAZALETAN BEREIZTEKO, KOLORE-KODE BAT SORTU DA. SANITARIOAK (KOMUNONTZIAK) GARBITZEKO ZER KOLORETAKOA ERABILIKO LITZATEKE?**

- 11a) Zapi urdina.
- 11b) Zapi gorria.
- 11c) Zapi berdea.
- 11d) Zapi horia.

**12 KOMUNAK GARBITZEKO ORDUAN, BADAUDE JARRAIBIDE BATZUK KOMUN BAT OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK GARBITZEAREKIN LOTUA DAUDENAK. ZEIN IZANGO LITZATEKE KOMUNONTZIA GARBITZEKO ERABILI BEHARREKOA?**

- 12a) Komunontzi barruan eskuila batekin igurtzi.
- 12b) Produktu desinfektatzailea bota eta berehala komuneko ponpari tira egin.
- 12c) Espartzu berde batekin igurtzi.
- 12d) Ez da erabili behar karearen aurkako produkturik.

**13 BULEGO BATEAN LAN EGITEN DUEN PERTSONA BATEK SORTZEN DITUEN HONDAKIN GUZTIAK ZAKARRONTZI BAKARRERA BOTATZEN BADITU, NOLA JOKATU BEHARKO LUKE GARBITZAILE BATEK?**

- 13a) Hondakin guztiak bereizi beharko lituzke eta dagokien ontzian bota.
- 13b) Zaborrontzia mahai gainean utziko luke, langileak jakin dezan txarto jokatu duela.
- 13c) Hondakin solidoak eskuz jasoko lituzke eta likidoak poltsan utziko lituzke.
- 13d) Ez luke poltsa barrua manipulatu.

**14 ESAN DAITEKE GARBIKETAK BI ADAR DITUELA, GARBIKETA PROFESIONALA ETA ETXEKO GARBIKETA. ZER ERANTZUN DAGOKIO ADAR PROFESIONALARI?**

- 14a) Lanak antolatzea.
- 14b) Erabilera errazeko produktu kimikoak.
- 14c) Antolaketa gutxi behar du.
- 14d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.



**15 GAINAZALEN ETA LURZORUEN ATALEAN, MATERIAL NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK DAUDE; ETA BI TALDE HORIEK MATERIAL GOGORRETAN ETA BIGUNETAN BANA DAITEZKE. ZEIN EZ DA HARTZEN MATERIAL GOGORTZAT?**

- 15a) Granittoa.
- 15b) Portzelana.
- 15c) Formika.
- 15d) Gresa.

**16 SINNERREN ZIRKULUAK MODU ERRAZEAN AZALTZEN DU ZER ZIKLORI JARRAITU BEHAR DION GARBIKETA-EKINTZA BATEK? ELEMENTU HAUETAKO ZEIN DAGO SINNER ZIRKULUAREN BARRUAN?**

- 16a) Ekintza mekaniko bat.
- 16b) Ekintza kimiko bat.
- 16c) Tenperatua.
- 16d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**17 PRODUKTU BATEN PH-A 0TIK 14RA BITARTEKOA DA. HORREK BI MUTUR ERAKUSTEN DITU: 0 BALIOA MUTUR AZIDOA DA, ETA 14A MUTUR OINARRIA EDO ALKALINOA DA. PRODUKTU HAUETAKO ZEIN SARTZEN DA AZIDOEN MULTZOAN?**

- 17a) Koipegabetzaileak.
- 17b) Amoniakoa.
- 17c) Txorrotetarako karearen aurkakoa.
- 17d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**18 MATERIALEN GELA BALDINTZA OPTIMOETAN MANTENTZEKO, BALDINTZA GARRANTZITSU BATZUK JARRAITU BEHAR DITUGU. ZER ERANTZUN EZ DA ZUZENA?**

- 18a) Gela hori beste edozein gela balitz bezala garbitu.
- 18b) Produktu arriskutsu guztiak batera jarri apal batean.
- 18c) Kuboa hutsik laga, inolako likidorik gabe.
- 18d) Ziurtatu produktu guztiak ondo itxita eta etiketatuta daudela.



**19 GARBIKETA EGITEKO JASOTAKO JARRAIBIDEEN INTERPRETAZIOAREN ETA EXEKUAZIOAREN ATALAREN BARRUAN, LANGILEAK EGIN BEHARREKO EGINKIZUNEN INGURUKO INFORMAZIOA HAINBAT BIDETATIK IRITSIKO ZAIO. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- 19a) Ahoz.
- 19b) Ahoz zein idatziz.
- 19c) Idatziz.
- 19d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**20 HAUTSA KENTZEKO GARBIKETAN, GARBITUKO DEN ZIKINKERIA GAINAZAL BATEAN DAGOEN HAUTS SOLTEARENA DA. HAUTSA DENEZ, GARBIKETA EGITEKO JARRAIBIDE BATZUK IZAN BEHAR DIRA KONTUAN. ZEIN EZ DA ZUZENA?**

- 20a) Lehenengo, lurra eskobatu behar da.
- 20b) Garbiketa gunee bertikaletatik hasiko da eta gero gunee bertikaletakoa egingo da.
- 20a) Garbitzeko zapia (baieta) produktu batez bustita egon behar da.
- 20d) Garbitzeko zapia eskuarekin (baieta) tolestu eta eskuarekin igurtzi, mugimendu zakarrik egin gabe.

**21 SORTUTAKO HONDAKINAK PILATU ETA ADMINISTRAZIO ESKUDUNAK ESKURA JARRITAKO JASOTZE-GUNE BATERA ERAMATEN DIRA. HONDAKIN HAUETAKO ZEIN BOTAKO LITZATEKE EDUKIONTZI BERDEAN?**

- 21a) Beirazko flaskoak eta ontziak
- 21b) Metalezko tapak
- 21c) Leihoetako kristalak
- 21d) Zeramika.

**22 ZENBAIT FAKTOREK ERAGIN NEGATIBOA IZAN DEZAKETE GRABIKETA-LANEN OHITURETAN ETA EXEKUZIOETAN. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- 22a) Denborak.
- 22b) Gainazalak.
- 22c) Monotoniak.
- 22d) a eta c erantzunak zuzenak dira.



**23 KRISTALEZKO GAINAZAL BAT GARBITZEKO ORDUAN ESANGURATSUENA HAREN AKABERA FISIKOA DA, BESTELA ESANDA, HAREN TESTURA. DEFINIZIO HAUETAKO ZEIN DAGOKIO “ALAKATUTAKO (BISELATUTAKO) TESTUARI?”**

- 23a) Gainazala lisoa izaten da ertzetaraino, non ebakidura zeharria (oblikua) izaten duten.
- 23b) Gainazala guztiz zulatuta egoten da gardentasuna eragozten duten mikropuntuengatik.
- 23c) Gainazala ez da uniforme eta hainbat desnibel ditu.
- 23d) Gainazala guztiz homogeneoa da eta zimurtasunik gabekoa.

**24 KRISTALAK GARBITZEKO ORDUAN EMAITZA ONAK IZATEKO OINARRIZKO ALDERDI BATZUK IZAN BEHAR DIRA KONTUAN. ZER ERANTZUN DA OKERRA?**

- 24a) Garbiketa ezarritako epean egitea.
- 24b) Mugarik ez jartzea lana egiteko denboran.
- 24c) Aurreikusi baino eskulan gehiago ez inbertitzea.
- 24d) Aurreikusi baino produktu gehiago ez erabiltzea.

**25 ERAIKINETAN HAINBAT ARRAZOIRENGATIK JARTZEN DIRA KRISTALEZKO GUNEA. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?:**

- 25a) Joeragatik.
- 25b) Ekonomiagatik.
- 25c) Estetikagatik.
- 25d) a eta b erantzunak zuzenak dira.

**26 BARRUKO KRISTALEN GARBIKETAREN INGURUKO AURRETIAZKO AZTERLAN BAT EGITEN DENEAN, LORTU NAHI DIREN HELBURUEN ARABERAKO BALORAZIO ZEHATZA EGIN BEHAR DA. ORIENTAZIO-IRIZPIDE HAUEN ARTEAN, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- 26a) Kristalezko guneen egoera egiaztatzea.
- 26b) Zirkunstantzietara ondoen egokitzen diren maiztasunak programatzea.
- 26c) Lan-altuerak konprobatzea eta erabili beharko liratekeen bitarteko lagungarriak baloratzea.
- 26d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

**27 KRISTALAK GARBITZEKO ORDUAN ERABILITAKO TRESNETAKO BAT PERTIKAK DIRA. BI OSAGAI EDO GEHIAGO IZATEN DITUZTE. ZER NEURRI BITARTEKOAK IZATEN DIRA?**



- 27a) 1,5 m eta 7 m bitartekoak.
- 27b) 2 m eta 8 m bitartekoak.
- 27c) 2,5 m eta 10 m bitartekoak
- 27d) 3m eta 9 m bitartekoak.

**28 UR ASKO DAGOEN ETA KORRONTE-HARGUNEAK GERTU DAUDEN LEKUETAN LANEAN HASI AURRETIK, ZER PREBENTZIO-JARDUKETA DA DERRIGORREZKOA?**

- 28a) Eraikineko gailu elektriko guztiak deskonektatzea.
- 28b) Korrante-harguneak gainbegiratzea eta lan-eremuari dagokion koadro elektrikoa lokalizatzea.
- 28c) Eskuzko erramintak bakarrik erabiltzea.
- 28d) Beste langile batekin batera lan egitea beti.

**29 GARBIKETAREN SEKTOREAN, ERORTZEKO ARRISKU OHIKOENETAKO BAT, HAUETAKO ZEINEKIN DAGO LOTUTA?**

- 29a) Industria-makina astunen erabilera desegokiarekin.
- 29b) Materialen ordena faltarekin eta lan-eremuan dauden oztopoekin.
- 29c) Lehen laguntzen inguruko formakuntza faltarekin.
- 29d) Argiztapen naturalik ez egotearekin.

**30 ZEIN ALTUERATATIK GORA DA BEHARREZKOA BABES-SISTEMAK ERABILTZEA, KRISTALAK GARBITZERAKOAN EZ ERORTZEKO?**

- 30a) 2 metrotik aurrera.
- 30b) 2,5 metrotik aurrera.
- 30c) 3 metrotik aurrera.
- 30d) 5 metrotik aurrera.

**ERRESERBAKO GALDERAK**

**31 ESPAINIAKO 1978KO KONSTITUZIOAREN ARABERA, ESPAINIARRAK BERDINAK DIRA LEGEAREN AURREAN, ETA EZIN DA INOLAKO BEREIZKERIARIK EGIN ARRAZOI HAUENGATIK:**

- 31a) Jaiotza, arraza, sexua, erlijioa edo ideologia-kondizioa.
- 31b) Jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta.
- 31c) Kondizio fisikoa eta morala.



31d) Jaiotza, arraza, sexua, erlijioa edo ideologia.

**32 HONDAKIN-PUNTU BAT MANIPULATU BEHAR DENEAN, BABES-EKIPO EGOKIAK ERABILI BEHAR DIRA. ZER ERANTZUN DA OKERRA?**

- 32a) Musuko egokiak.
- 32b) Eskularru erresistenteak.
- 32c) Egunero erabiltzen diren zapatilak.
- 32d) Babes osoko jantziak.

**33 TENTSIOAKTIBOAK KONPOSATU KIMIKOAK DIRA ZIKINKERIA KENTZEA ERRAZTEN DUTENAK, ETA HAINBAT MULTZO GARRANTZITSUTAN BANATU DAITEZKE. MARKATU ERANTZUN OKERRA:**

- 33a) Tentsioaktibo unionikoak.
- 33b) Tentsioaktibo anionikoak.
- 33c) Tentsioaktibo kationikoak.
- 33d) Tentsioaktibo ez ionikoak.

**34 KRISTALEZKO GAINAZALAK GARBITZEKO ERABILI BEHARREKO TRESNEK EZAUGARRI ESPEZIFIKOAK IZAN BEHAR DITUZTE. ZEIN DA ERANTZUN OKERRA?**

- 34a) Tresnak ekologikoak izatea.
- 34b) Tresnak iraunkorrak izatea.
- 34c) Tresnak ergonomikoak eta arinak izatea.
- 34d) Higitze-tresnek ordezeko piezak izatea.

**35 GARBIKETA-LANETAN GAS BIDEZKO INTOXIKAZIOA ARRAZOI HONENGATIK GERTATZEN DA NAGUSIKI:**

- 35a) Bustitako lurretako baporizazioa.
- 35b) Produktu azidoen eta alkalinoen nahasketa.
- 35c) Hidrogarbigailuak denbora luzean erabiltzea.
- 35d) Gune irekietako aireztapen falta.